

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

Euskara

Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskaraz antolatzeko eta emateko diru-laguntzen deialdiaren oinarriak. 2016-2017 ikasturtea

2016ko uztailaren 29an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2016-2017 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskaraz antolatzeko eta emateko diru-laguntzen deialdiaren oinarriak.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan arautuaren ildotik, eta orobat Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluan eta hurrengoetan eta Gasteizko Udalbatzak 2005eko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran hasierako onespena eman zion eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn -5. zk.- argitaratu zen Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzan arautuaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 15ean

Euskara Zerbitzuko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI PRUSILLA MUÑOZ

Gasteizko Udalaren helburua da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea eta, beraz, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Gasteizko Udalak beharrezko ikusi du helburu horietara iristeko programak garatzen dituzten pertsona juridiko pribatuei diru-laguntzak ematea, bereziki aisialdiaren arloan.

1. artikulua – Xedea

1. Oinarri hauen xedea da astialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskaraz antolatzeko Vitoria-Gasteizko Udalak emango dituen diru-laguntzak arautzea. Diru-laguntza horien bidez Udalak euskarazko ikastaroak bultzatu nahi ditu eta ikasleentzat lehiakorragoak bihurtu.

2. Deialdi honek helburu dituen ekimenak 2016-2017 ikasturteari dagozkie.

2. artikulua – Erakunde onuradunak

1. Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskola ofizialki izendatua duten pertsona juridiko pribatuek eskura ditzakete diru-laguntzak.

2. Deialdi honetatik bazter geratuko dira, berariaz, Vitoria-Gasteizko Udalak lehendik emandako beste diru-laguntzaren bat justifikatu gabe duten entitateak, instituzio hauekiko zerga-be-tebarrak bete ez dituztenak edo Gizarte Segurantzarekin zorra dutenak (soldatapeko langilerik

duten elkarteen kasuan). Zerga-betebeharrak bete ez badira, airean geratuko da diru-laguntza eman ala ez, elkarteak betebehar horiek bete dituela egiaztatu arte. Horretarako 10 eguneko epea izango du, jakitera ematen zaion egunetik kontatuta. Emandako epean hala egiaztatu ezean, diru-laguntza eskabidea artxibatu egingo da, besterik gabe.

3. Ezingo dute diru-laguntzarik jaso beren baitan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten duten elkarteek, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako elkarteak izanik, helburu nagusia baldin bada gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko emakumezkoen nahiz gizonezkoen berariazko interes eta beharrak sustatzea.

4. Elkarteei ez zaie inolaz ere eskabiderik onartuko baldin eta onuradun izatea debekatzen duten zirkunstantzietakoren batean badaude, hau da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2. eta 3 artikuluen adierazitakoetakoren batean.

3. artikulua — Diru-laguntzak jaso ditzaketen egitasmoak

1. Deialdi honen barruan astialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak aurkeztu ahal izango dira, honako baldintza hauek betez gero:

1.1. Ikastaroek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren 419/1994 dekretuak I. eranskinean ezartzen dituen gutxienezkoak betetzea.

1.2. Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak emateko eskola izateko izendapen ofiziala izatea.

1.3. Eskolek aurreko hiru ikasturteetan Gasteizen ikastaroak eman behar izan dituzte.

1.4. Programazioaren eskola-orduen ehuneko laurogei gutxienez euskaraz izango da eta ikasleek hala jaso beharko dute.

1.5. Ikastaroak Gasteizen ematea 2016ko uztailaren 1etik 2017ko uztailaren 1era bitarteko epearen barruan.

4. artikulua — Diru-laguntzaren zenbatekoa

1. Xede hauetarako, guztira, 6.300,00 euro erabiliko da; Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuko 2016ko ekitaldiko aurrekontuetako 2016/0171.3351.48005 partidan jasotako kredituaren kontura.

2. Eskatzaile bakoitzak 180,00 euro jaso ahal du, ikastaroan izena eman duen ikasle bakoitzeko. Eskaeren zenbatekoak, orotara, ezin izango du partida honen kopurua gainditu. Hala izatekotan, diru-kopurua hainbanatu egingo da baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien artean.

5. artikulua — Lankidetzarako konpromisoa

Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan jarduteko konpromisoa hartuko du bere gain programa honen baitan eskaria egiten duen elkarte orok.

Euskara Zerbitzuak ekintza eta programa horien zabalkundea egin dezake Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitako programa eta egitarauetan, edozein kasutan ere erakunde antolatzailea zein den argi adierazita.

Beharrezkoa denean, Euskara Zerbitzua elkarteekin batera arituko da egitasmoen kudeaketan, edo egitasmoak hobetzeko proposatzen diren eginkizunetan.

Jarduerak antolatzeko, udalaren ekipamenduak erabili ahal izango dira. Horrelakoetan, kasu bakoitzari dagokion hobaria eman ahal izango da tasetan, edo ordaintzetik salbuetsi, ekipamendu bakoitzaren arau espezifikoak hori baimentzen duenean. Hala ere, eskatutako kanpo-zerbitzuak ordaindu beharko dituzte onuradunek, eta behartuta egongo dira soinuak

nahiz ikusteko publizitatean Gasteizko Udalaren babesaren berri eman edo haren logotipoa agertzera.

6. artikulua — Eskabideak aurkeztea

1. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da deialdia ALHAOn argitaratzen denetik kontatzen hasita.

2. Eskabideak Euskara Zerbitzuari zuzenduko zaizkio eta, deialdiko eranskinean zehazten den dokumentazioarekin batera, Gasteizko Udaleko San Antonioko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan (San Antonio kalea, 10) edo Herri Administrazioen 30/1992 Legean ezarritako edozein bideetako bat erabilita (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazioa Prozedura Erkidearena). Halaber, dokumentazioa Herritarrei Laguntzeko beste bulego hauetan aurkeztu ahal izango dira: Lakua, Hegoalde, Pilar, Judimendi, Iparralde, Arriaga, Aldabe, Ibaiondo, Salburua edo Ariznabarra kiroldegiko bulegoan. Dokumentazio guztiaren jatorrizko agiriak eta horien fotokopia bana aurkeztu beharko dira.

7. artikulua — Eskabidean egindako akatsak zuzentzea

Euskara Zerbitzuak ikusten badu eskatzaileak aurkeztutako eskabidean okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela, hala jakinaraziko dio eskatzaileari, eta horrek 10 eguneko epea izango du akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko. Epe hori igaro eta akatsak zuzendu edo agiriak osatu ezean, interesdunak eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Udalak horretarako ebazpena egingo du, 30/1992 Legearen 71. artikulua adierazitako terminoetan.

8. artikulua — Beste diru-laguntza edo laguntzekiko bateragarritasuna

1. Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin beste edozein erakunde publikok edo pribatuk ematen dutenekin, gain-finantzaziorik gertatzen ez den bitartean. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienezko mugara arte.

2. Deialdi honetara aurkeztutako proiektua garatzeko bestelako diru-laguntzarik eskatu eta lortu duten elkarteek beren programaren azalpenean adierazi beharko dute zein erakunde edo administrazioari eskatu dioten eta zenbat eskuratu duten (erakunde horiek pribatuak zein publikoak izan, estatukoak nahiz atzerrikoak).

9. artikulua — Onuradunen betebeharrak

Deialdi honetako diru-laguntzen onuradun diren entitateek honako betebeharrak izango dituzte:

— Diru-laguntza onartzea. Hamabost eguneko epean berariaz eta idatziz uko egiten ez badiote —eman zaiela jakinarazten zaien egunetik kontatuta—, onartu egiten dutela ulertuko da.

— Diru-laguntza zertarako eman zaien, hartarako baliatzea.

— Jarduera burutu dela egiaztatzea Euskara Zerbitzuaren aurrean, baita laguntzak berekin dakartzan betebeharrak eta baldintzak bete direla ere.

— Egiten diren egitarau, kartel, argazki eta bestelako material grafiko idatzizko nahiz soinu-uzkoetan, Vitoria-Gasteizko Udalaren logotipoak erabili beharko dira. Horrez gain, Gasteizen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitako diru laguntza jaso duela berariaz adierazi behar da. Elementu horiek udalaren irudi korporatiboarekin bat etorrira erabiliko direla zainduko du Euskara Zerbitzuak. Proiektu honetan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Hizkuntza Politika-rako Sailburuordetzak eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuak parte hartzen dute, eta propio aipatu beharko da lankidetzara hori Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatua erabiliz.

– Diru-laguntza jaso duen programan edozein aldakuntza edo moldaketa egin nahi denean, Vitoria-Gasteizko Udalari idatziz jakinaraztea; izan ere, Tokiko Gobernu Batzarraren berariazko onespena beharko da halakorik egitekotan.

– Diruz lagundutako proiektuaren segimendua egite aldera, eskatutako agiri guztiak ematea Vitoria-Gasteizko Udalari.

10. artikulua – Ebazpena

1. Deialdi honetako diru-laguntzak esleitzeko ebazpena Tokiko Gobernu Batzarrak emango du, balorazio batzordearen proposamena ikusita, gehienez ere hiru hilabeteko epean, oinarriak ALHAOn argitaratzen direnetik.

2. Ebazpen hori interesatu guztiei jakinaraziko zaie eskabidean adierazitako helbidean. Era berean, ebazpenaren kontra zein errekurtsio aurkeztu ahal den adieraziko zaie.

3. Erabakitzeke gehienezko epe hori igarota berariazko ebazpenik eman ez bada, diru-laguntza eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko da, Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantzan xedatutakoaren ildotik. (2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn argitaratua).

11. artikulua – Diru-laguntza ordaintzea

1. Deialdiari dagokion ebazpena onartu ondoren, onartutako kopuruak oso-osorik ordainduko dira, jarduerak aurrera eramateko ezinbesteko finantzazioa dela jotzen baita.

2. Ordainketa egin aurretik, entitateak egiaztatu beharko du zorrik ez duela ez Udal Ogasunarekin eta ez Gizarte Segurantzarekin. Entitateak zerga-betebeharrak bete ez baditu, ez zaio diru-laguntzarik ordainduko, elkarteak betebeharrak bete dituela egiaztatu arte.

12. artikulua – Diru-laguntza zuritzea

1. Onuradunak emandako diru-laguntza 2017ko uztailaren 31 baino lehen zuritu beharko du. Horretarako Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuari beharrezkoa den dokumentazioa eman beharko dio: besteak beste, proiektua nola gauzatu den azaltzen duen memoria, eta jardueren kostua zuritzen duen memoria ekonomikoa.

Aurreko paragrafoan zehaztutakoa egin ezean, Diru Laguntzen Udal Ordenantzak agintzen duena aplikatuko da. Horren arabera, onuradunari jasotako dirua itzultzeko eskatu ahal zaio, baita diru zigorra ezarri ere.

2. Hitzartutako jardueren aurrekontu osoa justifikatu beharko da (ehuneko ehuna), eta ez soilik Udalak diruz lagundu duen kopurua. Halaxe agintzen du azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikulua. Era berean, zehaztu beharko dira Udalari egozten zaizkion gastuak zein diren.

3. Justifikazioak honako atal hauek izango ditu:

a) Gauzatutako proiektuen nondik norakoak azaltzen dituen memoria, lortutako emaitzak barne.

b) Jardueren kostua zuritzen duen memoria ekonomikoa. Honako dokumentazio hau bildu behar du:

Gastu guztien, eta hala badagokie, inbertsio guztien zerrenda ordenatua. Bertan fakturen xehetasunak emango dira: hartzekodunak, diru-kopuruak, jaulkipen-datak eta ordaintze-datak. Hau guztia taula batean aurkeztuko da, eta fakturak kontzeptuen arabera antolatuko dira, diruz lagundutako jarduerekin bat etorrira.

4. Diruz lagundutako jarduerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak izango dira diru-laguntza jaso dezaketen gastuak. Orobat honako gastu hauek aurkeztu ahal izango dira: (a) diruz laguntzen diren ekitaldiak burutu dituzten langileen gastuak (nominak, joan-etorriak,

dietak...); (b) beste enpresen edo entitateen zerbitzuen kontratazioari dagozkionak; (c) publizitate-gastuak; (d) produkzio-gastuak; eta (e) ekitaldia burutzeko egin diren bestelako gastuak, hala nola, bulegoko material suntsikorra, informatika materialen konponketa, telefono eta internet gastuak, fotokopiak, posta edo mezularitza, garbiketa gastuak...

5. Diruz lagunduko ez diren gastuak: (a) onuradunari etekin komertziala ematen dizkieten gastuak; (b) ondasun inbentariagarriak erosteko, eraikitzeko, birgaitzeko edo hobetzeko gastuen kasuan. Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.4 eta 31.5 artikulua aplikatuko dira; (c) zeharkako zergak, BEZ kasu, ez dira diruz lagunduko, gerora berreskuratzeko edo konpentsatzeko aukera dagoenean; (d) diruz lagundutako jarduera burutzeko guztiz beharrezkoak ez diren gastuak ez dira diruz lagunduko (Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikulua hala dio, abenduaren 22ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 39/2010 Legeak aldatu eta gero.).

6. Diruz lagundu diren jarduerari dagozkien fakturak jatorrizkoak izango dira edo faktura horien kopia konpultsatuak (hala badagokie). Fakturekin batera, ziurtagiri bat aurkeztu behar da, faktura horiek guztiak proiektuaren baitan sortutako gastuei dagozkiela ziurtatzeko, eta jatorrizkoak eskuragarri daudela adierazteko.

7. Hartze-agiriak onartuko dira, soil-soilik gastuak ezin direnean beste modu batean egiaz-tatu. Edonola ere, hartzekoduna ezin izango da enpresaria edo profesionala izan, kasu horietan faktura egiteko behartuta egongo baita Hartze-agiriak, baliouduna izateko, honako datuak jaso behar ditu::

- Izen-abizenak, IFZ eta helbidea: bai diru-emaileena baita hartzaileena ere.
- Operazioaren edo zerbitzuaren deskripzio zehatza eta horren prezioa.
- PFEZ atxikipena. Atxikipena Ogasunean ordaindu izanaren agiria ere erantsi behar da.
- Lekua, data eta hartzailearen sinadura.

8. Langileen gastuak zurrizteko, nomina aurkeztu behar da, eta Segurantzaren TC2 dokumentua entitatearen izenean. Erantzukizunpeko aitortpena ere aurkeztu behar da, gastu hori diruz lagundutako jarduerari dagokiola ziurtatzeko, eta denborak eta kantitateak zehazteko.

9. Diruz laguntzen den ekintzagatik jasotako bestelako diru laguntzen edo diru sarreren zerrenda: zenbatekoak eta jatorria.

– Diru-sarreren eta gastuen balantzea. Gastuei dagokienez, Udalak bere gain hartzen dituen gastuen guztizkoa bat etorri behar da Udalak emandako diru laguntzarekin.

– Beste administrazio publiko batek edo batzuek diruz lagundu badute jarduera berbera, aurkeztu beharko da dokumentu bat eta bertan hurrengo hauek adieraziko dira: diru laguntza eman duen administrazioa; diru laguntza horri dagozkion gastuen fakturak zerrendaturik eta zenbakiturik, baita hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen eta ordainketa datak ere. Era berean, onuradunaren legezko ordezkariak sinatu beharko du.

9. Hala baldin badagokio, elkarteak proiektua gauzatzeko, soldatapeko langilerik izan ez duela adierazten duen zinpeko aitortpena.

10. Zinpeko adierazpena, hala badagokio, non adierazten den proiektua aurrera eramateko ez duela soldatapeko langilerik.

11. Onuradunak kontratazioak egin aurretik eskatu behar dituen hiru eskaintzen kopia. Izan ere, hiru eskaintza horiek eskatu behar ditu baldin eta 50.000,00 euro baino gehiagoko obrak kontratatu behar baditu, edo baldin eta 18.000,00 euro baino gehiagoko hornidurak edo aholkularitza eta laguntza teknikoak kontratatu behar baditu.

12. Diruz lagundutako jardueraren baitan sortu diren dokumentu grafiko eta idatzien ale bana: ikerketak, egitarauak, argitalpenak, kartelak eta bestelakoak.

13. Aurkeztutako fakturen guztizkoa jasotako diru laguntzaren zenbatekoa baino txikiagoa baldin bada, edo proiektua gauzaterik egon ez bada, onuradunak hala jakinarazi behar du, eta Gasteizko Udalaren diruzaintzan dena delako diru-kopurua itzuli.

13. artikulua – Azpikontratatzea

Hauxe joko da onuradunaren azpikontrataziotzat: beste norbaitekin hitzartzea hark egin dezala diru-laguntzaren xede den jarduera, osorik nahiz parte bat. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da diruz lagundutako jarduera berak egiteko onuradunak egin beharreko gastuen kontratazioa.

Onuradunak gehienez ere diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko berrogeita hamarra azpikontratatu ahal du, hala agintzen baitu Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak (azaroaren 17koak) 29. artikuluan eta hurrengoetan.

Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitzen duelarik ere haren edukiari balio erantsirik ez dakarkion ekintzarik.

14. artikulua – Diru-laguntza galtzea eta diru-laguntza itzultzea

Jasotako diru-kopurua itzuli egin beharko da, dagokion txostena tramitatu ondoren, honako egoera hauetan: a) eskabideko datuak edo eskatutako agiriak faltsutu badira, b) emandako diru-laguntza hitzartutako helburuak eta ekintzak egiteko erabili ez bada, c) ezarritako betebeharrak bete ez badira, d) Honakoetan xedatutako egoeretan: Udal Ordenantzaren 20. artikuluan; azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 36. artikuluan eta bere araudian garatutakoetan (887/2006 ED, uztailaren 21ekoa). Era berean, pertsona edo erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duen diru-kopurua itzuli egin beharko du.

Jasotako diru-kopurua itzularazteko prozedura Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantzaren, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta bere araudian xedatutakoaren arabera izango da.

15. artikulua – Interpretatzea

1. Oinarri hauek interpretatzean sortzen den zalantza oro Tokiko Gobernu Batzarrak ebaziko ditu.

2. Vitoria-Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantza, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta legea garatzen duen Araudia izango dira oinarrizko arauak.

16. artikulua- Publizitatea

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren diru-laguntza eta laguntzak Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak.

Oharra.

Eskatzaileek ematen dituzten xehetasunak erakunde honek dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan sartuko direla jakinarazten du Vitoria-Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Udal eskumenean alorrean, euskararen erabilera sustatzeko proiektuen finantzazioa ahalbidetzea da fitxategi horien helburua. Eskubideez baliatu nahi izanez gero —datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Gasteizko Udaleko Argibide eta Erregistro Bulego Nagusira jo beharra dago (Teodoro Dublang 25 Vitoria-Gasteiz) edo Herritarrei Laguntzeko Bulegoetara.

Eranskinak

Deialdi honetan beharrezkoa den dokumentazioa (eskaera aurkezteko eta ondoren zuriketa egiteko) Vitoria-Gasteizko Udalaren web orrian eskura daitezke edo Euskara Zerbitzuaren bulegoan (Frai Zacarias Martinez 2 – 01001 – Vitoria- Gasteiz).